

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko azaroaren 15a. VIII. urtea. 2.307. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Kritikak jaso ditu Elena Calen hiltzaileari jarritako zigorrak

Tolosaldeko Bilgune Feministaren eta Tolosako Udaleko berdintasun teknikariaren ustez, Elena Cal kalean bizi izana aitzakiatzat hartu dute hiltzailearen kondena laburtzeko; hiru urte eta erdiko zigorra jaso du **03**



A. IMAZ

→ Amasarrek ezustekoa eman duten gizon proban.

Amasako jaietan gizon proban aritu dira Zizurkil eta herriko gazteak; kanpotarrak indartsu hasi badira ere, etxeok hiru plaza gehiago egin dituzte. Errezilen jokatu den desafioan, aldiz, etxeok nagusitu dira, Berrobiko taldea gaindituz. **07**

Eneko Etxeberriaren gaztak eskuratu du Berastegiko lehiaketa

XIII. Azoka Egunaren barruan, hainbat sari banatu zituzten, tartean gazta onenarena; goiz, osoan zehar herriko produktuak ikusi eta erosi ahal izan ziren hainbat postuetan **02**



Eneko Etxeberria, gazta sariduna eskuan duela. M. UGARTEMENDIA

Aizpurua tolosarrak finalerdietarako txartela lortu du

Zeberio II.a eta Ion 37an utzi dituzte Ezkurra-Aizpurua II.ak, Binakako Erremonte Txapelketan; elduaindarrak aurrera jarraitzeko azken partida irabazi beharko du **07**

Amaia Arbillaga

Korrikalaria

«Eguraldi hobearekin, arinago ibiliko ginen; hezetasun handia zegoen»

Korrikalari tolosarra eskualdeko lehenengoa izan da, 1:21:17 eginez

Amaia Arrue

Korrikalaria

«Emozioz betetako lasterketa da; ikusleek asko laguntzen dute»

Korrikalari tolosarra eskualdeko bigarrena izan da, 1:33:03 denborarekin

Ion Alberdi

Korrikalaria

«Mirakruzeko azken aldapa oso gogorra da; ahal nuen bezala igotzen dut»

Korrikalari berrobitarra eskualdeko bigarrena izan da, 1:11:19 lortuz

Behobia-Donostia lasterketako lehen postuetan aritu direnei elkarrizketa **06**





Agerraldiaren ondoren, elkarretaratzea egin zuten Trianguloa plazan. I. URKIZU

Tolosaldeko langabezia %69 igo da 2008az geroztik, LABek azaldu duenez

Sindikatuak 'Gezurretan ari zarete' kanpaina aurkeztu zuen pasa den ostiralean, Tolosako kultur etxean

Itzea Urkizu Tolosa

LAB sindikatuak *Gezurretan ari zarete* kanpaina aurkeztu zuen pasa den ostiralean. Tolosaldean 2.681 langabetu daudela nabarmendu zuen eta 2008tik %69 igo dela langabezia. Azken hiru urtetan enpresa erakundeek nahiz erakunde politikoen, krisi egoeraren aurrean hartu dituzten erabakiek, ez dutela balio azaldu zuten Haizea Mendia eta Joana Mendez LABeko kideek, «Euskal Herriarentzat burujabetza politiko eta ekonomikoa» ekarriko lukeen alternatiba bat proposatuz.

Besteak beste, Tolosaldeko enpresen eta langabeziaren mapa aurkeztu zuten. Hego Euskal Herrian 185.000 langabetu daude gaur egun, eta «enpresak ixteaz gain, gero eta lan erregulazio txosten gehiago daude», LAB sindikatuaren arabera.

Lan erreformarekin langileen

eskubideak zapalduak izan direla salatu zuten, eta «gastu soziala eta publikoa etengabe murrizten» ari direla. Horrela beraz, erakundeek azken urteotan hartutako neurriak «elite finantzieroa elikatzeko» balio izan dutela dio sindikatuak: «Errudunak bankariak, enpresariak eta beraiek babesten dituzten politikatiak dira».

Tolosaldean 2.681 langabe

LAB sindikatuko ordezkariak eskualdeko datuak nabarmendu nahi izan zituzten. Beren arabera, «Tolosaldeko egoera asko okertu da 2008az geroztik».

Duela hiru urte Tolosaldean 1.587 langabetu zeuden; gaur egun, ordea, 2.681 dira eskualdeko langabeak. Honenbestez, %69 igo da langabezia. Gipuzkoan ere, «egoera beldurgarria» dela azaldu dute LAB sindikatuko ordezkariak. Izan ere, 2008an baino 15.122 langabetu gehiago daude gaur egun; 40.224 guztira.

Eskualdean nahiz Gipuzkoan erregulazio txosten asko martxan jarri dituztela dio sindikatuak, eta oraindik ere jarriko direla. Era berean, enpresa nahiz komertzio asko itxi egin direla ere

aipatu zuten. Lan erregulazio txostena aplikatu duten eskualdeko hainbat enpresa aipatu zituzten LABeko ordezkariak: Calparsoro, Papelera Amaro, Endaki, Leibi, SAM, Unipapel, Arteka, Manipulados Uza, Serreria y Embalajes Salaberria, Mecánicas Goñaz, Prefabricados Iturria, Perrot, Industrias Ocariz, Talleres Arretxe, Mecánicas Maimen, Talleres Mecánicos Lanbi edo Insa-lus, besteak beste.

2008az geroztik itxi dituzten zenbait enpresa ere gogora ekarri zituzten: Gorostidi, Emusi, Ipar-kal, Gráficas Hamaika, Olur edo Talleres Mecánicos Nazabal.

«Alternatiba bat bada»

Gezurretan ari zarete kanpainaren aurkezpena Antonio Maria Labaien kultur etxean izan zen. Euskal ekonomia Europako ekonomia bilakaerarekin «zuzenean lotuta» dagoela nabarmendu zuten: «Momentu honetan desazelerazio betearen dago europar ekonomia».

Honen aurrean, sindikatuak eskualderako eta Euskal Herrirako alternatiba bat proposatu zuen. «Lanaren banaketan oinarritutako kalitatezko enplegu estrategia» nahi dute, lehenik eta behin. Bide beretik, «babes sozialaren sistema duina» eta «euskal pentsio sistema publikoa» ere aldarrikatu zituzten. Azken puntu gisa, sindikatuko ordezkariak euskal sektore publiko sendo, eraginkor eta indartsuaren beharra nabarmendu zuten, «emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunarekin».

Azkenik, alderdi politikoen nahiz erakundeen aldetik «egoera honi aurre egiteko borondatea azaltzen dutenekin batera lanean aritzeko prest» daudela azaldu dute.

Eneko Etxeberria irabazle, Berastegiko XX. Gazta Lehiaketan

Pasa den igandean, XIII. Azoka Egunaren barruan, hainbat sari banatu zituzten Berastegin

I. Urkizu Berastegi

Kultur astearen barruan, azoka eguna izan zen Berastegin, pasa den igandean. Beste hainbat lehiaketaren artean, nabarmena XX. Gazta Lehiaketa izan zen, eta Berastegin bertan bizi den Eneko Etxeberria nafarra suertatu zen garaile.

Goiz osoan zehar herriko produktuak eskuragarri izan ziren hainbat postutan: barazkiak, gazta, ezti, eskulanak, eta abar. Hala ere, jarduerarik nabarmenak 11:00etatik aurrera hasi ziren: II. Baratze lehiaketa, IV. Argi-

ahari eta bildots lehiaketa, V. Animal Erakusketa, IX. Argazki Lehiaketa, XIII. Postu Lehiaketa eta XX. Gazta Lehiaketa.

Eneko Etxeberriaren gaztak irabazi zuen lehiaketa, eta 200 euroko saria jaso zuen. Parte hartzaileek, goizeko 10:00etarako frontoira eraman zituzten gaztak. Baldintza bakarrak herritarra izatea eta etxeko ardi esnearekin egindako gazta aurkeztea ziren. Honez gain, parte hartzaile bakoitzak gazta bakarra aurkezteko zeketen.

11:30etatik 13:00era bitarte aritu zen epaimahaia gaztak dastatzeko, eta sari banaketari ekin zioten gero.

Azoka eguna amaitzeko, 18:00etan talo jatea izan zen Berastegin, goizeko lehiaketan parte hartu zuten gaztak dastatuz, eta ardo nahiz sagardoarekin.

• ibarraldea@hitza.info



13:00ean sari banaketa izan zen. M. UGARTEMENDIA

Irudia



ISTRIPUA N-1 ERREPIDEAN

Kamioi batek istripua izan zuen atzo, 10:15ean, N-1eko 438 kilometroan, Tolosa eta Irura artean. Bi noranzkoetan auto ilarak sortu zituen. Kamioi bati karga erori zitzaion, eta istripuan ez zen zauriturik izan. A. IMAZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Kontrako erreakzioak sortu ditu Elena Calen hilketaren auziko sententziak

Fiskalak 14 urte eskatu zituen arren, hiru urte eta erdiko espetxe zigorra bete beharko du Pablo Jorge Simonek

Itzea Urkizu

Pasa den urtarrilean, Elena Cal hil zuen gizonari zinpeko epaimahaiak arduragabeko erailketa egotzi eta gero, epaileak hiru urte eta erdiko espetxe zigorra jarri dio. Epailearen idatziak, Pablo Jorge Simon hiltzaileak «alkoholarekiko menpekotasun larria» zuela dio, eta horrek eragina izan zuela gertakarian. Fiskalak hamalau urteko espetxe zigorra eskatzen zuen arren, azkenean hiru urte eta erdiko zigorra bete beharko du, eta era berean, 92.000 euroko kalte-ordaina eman beharko dio Elena Calen orduko bikotekideari. Tolosaldeko Bilgune Feministak nahiz Tolosako Udaleko berdintasun teknikaria den Josebe Iturriozek, Elena Cal eskalea zenaren «aitzakia» erabili dutela dio, hiltzailearen kondena jaisteko.

Epaileak, esan bezala, hiru urte eta erdiko kartzela zigorra jarri dio Calen hiltzaileari. Hilketaren nahita ez zuela egin esan du epaileak, eta zuhurtzagabekeriak zoz homizidioa izan zela. Pablo Jorge Simao hiltzaileak berak, Elena Cal hil izana aitortu zuen epailetan, baina bere asmoa hori ez zela gaineratu zuen.

Duintasuna defendatuz

Tolosaldeko Bilgune Feminista, bere aldetik, ez da ados agertu epaiairekin: «Emakumeen aurkako indarkeria horrela ordaintzen bada jendarte honetan, zein emakume ausartuko da bere erasotzailearen aurkako salaketa jar-



Irudian, Elena Calen hilketaren salatza egin zuten elkarretaratzea. HITZA

tzen, sistemaren aldetik inolako babesik ez duela izango jakinda?». Bilgune feministak, beraz, emakume erasotzaileak, lehenik eta behin, gizarteko arlo guztien babesa (epaitegiarena, erakundearena, poliziaarena, osasungintzarena, eta abar) behar duela aldarrikatu du.

Era berean, Elena Calen estatutasak epaian zerikusia izan duela dio Bilgune Feministak: «Behin eta berriz ari dira nabarmentzen komunikabideetan, Elena Cal kalean bizi zela, eskalea zela. Eta zer? Beste behin ere agerian geratu al da herritar guztiok ez garela berdinak legearen aurrean?». Honen aurrean, «jendarteak jarrera hauek ezin dituela babestu» uste du Bilgune Feministako kideek: «bere duintasuna ekarri nahi dugun hona, epaile eta sistema ka-

pitalista patriarkalak lur azpian utzi nahi izan duen duintasuna».

«Legeak bete ditzatela»

Josebe Iturrioz, Tolosako Udaleko berdintasun teknikaria, hainbat puntutan bat dator Bilgune Feministarekin.

Genero indarkeria identifikatzea kosta egiten dela salatu du hasteko: «Elena Calen kasuarekin, hasiera-hasieratik mahai gainean jarri zen eskalea zela». Gainera, Ertzaintzak ere hasiera batean hilketaren ez zuela indarkeria genero bezala sailkatu azaldu du Iturriozek.

Duela urte bete jasotako laban-kadarena, Elena Calek jasandako lehen genero indarkeria ez zela izan ere nabarmendu nahi izan du Josebe Iturriozek: «Elena Calek genero indarkeria bizitza oso-

an jasan zuen. 16 urterekin bortxatua izan zen, eta alaba Galizian utzita etorri zen hona. Bortxaketa haren ondorioz, eskizofrenia sortu zitzaion gainera». Horrela beraz, indarkeria matxista Calen bizitzan «erabagarria» izan dela esan du Iturriozek.

Hiltzaileari jarri dioten zigorraren inguruan, berriz, desadostasuna azaldu du Iturrioz ere: «Ni ez naiz kondena igotzearen eta antzeko gauzen aldekoa, baina argi dago emakume bat txabola batean erailtzen dutenean, jendea ez zaiola axola. Momentu honetan emakume bat hiltzea ez da garrantzitsua; Euskal Herrian, adibidez, garestiago ateratzen da kurtzazain bat erretzea, emakume bat erailtzea baino». Iturriozek legeak bete epailek legeak bete ditzatela eskatzen du.

→ Laburrak

Jai batzordea izango da gaur iluntzean

GIZARTEA › Gaur, 19:00etan, jai batzordeko bilera izango da Antonio Maria Labaien kultur etxean. Besteak beste, jai batzordea bera antolatzeko izango da lehen bilera.

Hitzaldiak Samaniego ikastetxean

HEKUNTZA › Samaniego ikastetxean *Erantzunkizuna sustatuz seme-alabengan* izeneko pedagogia tailerra antolatu dute. Familia, irakasle, hezitzaile zein begiraleei zuzendutako dira, eta bertan autoestimua, ardurak, etxerako lanak, harremanak eta antzeko aspektuak landuko dituzte. Azaroaren 18an eta abenduaren 12an izango dira 17:30ean, Haur hezkuntzako erabilera antzeko gelan. Tailerra, Ana Elosegi Uranga psikologo sistemikoak gidatuko du.

Sorospeneko doako hitzaldia DYaren eskutik

OSASUNA › Datorren azaroaren 30ean, sorospeneko doako hitzaldia izango da kultur etxean, 19:30etik 21:30era bitarte. DYAko antolatzaileek, bertaratuak parte hartzeko formatuan egin nahi dute bilera, eduki teorikoez gain, elkartzen diren beren testigantzak kontatu dituzten, aholkuak elkartrukatu eta mahai ingurua sortzeko.

Aurrezkiari buruzko hitzaldia bihar

EKONOMIA › ADICAEk antolatuta, aurrezkiari buruzko hitzaldia izango da bihar, kultur etxean, 19:00etan. Banakako orientazioa nahiz aholku praktikoak eskuratu ahal izango dira.

EUSKADIREN ALDE





Prest gaude: Irreitasuna, esperientzia eta bizitasuna ditugu. Egunero ahalegintzen gara. Horregatik konfiantza eduki dezakegu, lortzeko gai izango gara. Aurrera egiteko gai.

JOSU ERCORRIA
ANEIZA TAPA
WWW.EAJ-PNV.EU



Tolosa



AMAIURREN ALDE BOZKATZEKO ESKATU DIETE HERRITARREI

Tolosako hainbat herritar eta ordezkari politikok Amaiur koalizioaren aldeko agerraldia egin zuten aste-gunean. «Gure herritaren bozgarria» izateko helburua-rekin koalizioan babesa eman zioten, eta «Euskal He-riari dagozkin eskubideak onartzearen exijentzia»
 Madrilen ere ozen entzuteko nahia azaldu zuten.
 «Amaiur koalizioak ordezkari zuten ekoerako abar-tzale, soberanista eta independentisten batasunak ba-illo izugarria» duela ere esan zuten. Igande honetako hauteskundeekin jarraituz, Amaiurren aldeko agerraldi berri bat egin zuten hainbat tolosarrek larunbatean, Nafarroako Zuberoan. Kasu honetan, eskualdeko Bilduko hainbat udal ordezkari ere bertan egon ziren. Guztiek azaroaren 20eko hauteskundeetan Amaiurren aldeko bozka eskatu zien herritarrei. L. GARCIA, IBAZ

Anoeta



IRAIA OTXOAK IRABAZI DU XAKE LEHIA

Anoetako Kultur eta Kirol Astearen barruan Xake Txapelketa jokatu zen herenegun, Hozpel kaleko lokalean. Bertan, LHI eta DBH2 maila bitarteko 23 haur aritu ziren lehian, eta 15 ume inguru xakean jolasten. Txapelketa osoaren irabazlea Iraia Otxoa izan zen. Egitarauarekin jarraituz, atzo, Ipuin kontaketa saloa eduki zuten, eta gaur, Loatzo Musika Eskolaren emanaldia, 19:00etan. L. GARCIA, IBAZ

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

YOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZEINGONARDA
 San Esteban auzoa, 14A • 20600 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Fax: 943 652 938 • info@yolosarepreveugeot.com

Ibarra



BALANTZEA ETA AMAIUR

Ibarako udal berriak lehen hila betetako balantzea egin zuen iragan ostegunean. Kultur etxean elkartu ziren Bilduko udal ordezkariak, bilera gerturatu ziren herritarrekin. Bertan, orain arte egindako lana eta aurrera begirako eronkak aztertuz zituzten. Bileran irekia zenez, nahiz zuten orok parte hartzeko aukera eduki zuten. Bistalalde, azaroaren 20ko hauteskundeei begira, Bilduko zortzi hautetsiek Amaiurren alde bozka eskatu zuten. L. GARCIA, IBAZ

Tolosa



EMAILE IZATEKO AUKERA

Larunbatean emaille izateko aukera eskaini zuten Atcore elkarteak kideek. Euskadiko bihotz eta birika galdien eta transplanteatuen elkarteak postua jarri zuen Tolosaldeko Triangulua plazan. Bertan, emaille izatearen inguruko informazioa banatzen ibili ziren elkarteak kideak. Hurrez gain, Gaztelako atea jarri zuten mahaitxoan, emaille izateko aukera eskaini zuten. Atcoreko kideen esanetan: «Transplante gehiago egin ahal izateko aztopo nagusia emaille guri egotea da». L. GARCIA, IBAZ

Gaztelu



BIDE ERTZEAN TALDEA, GAZTELUN

Azaroaren 5 eta 6ko asteburuan, Gaztelun Asteburu Kulturala ospatu zuten. Uholde-ak izanagailik, egitaraua aurrera ateratako lortu zuten gainera herritarrek. Bertako produktuen azoka, hamalaketakoa eta jolabatuaren bazkaria izan zituzten igandean. Aurreko egunean beriz, haurrentzat magoa eta jolasak, Iluntzean afaña eta tartean, Bide Ertzean taldearen kontzertua. Gazteluaren esanetan, giro ederra izan zuten, eta parte hartu zuten guztiak eskerrak eman nahi izan didike antolatzaileek. L. GARCIA, IBAZ

Tolosa



REALA BERAZUBIN

Iragan ostiralean lagunarteko partida jokatu zuen Realak Berazubin. Santandereko Racing-en aurka, Txuri-urdinek irabazi zuten lehia. 4-0eko emaitzarekin, Iruñe igari elkartu zen partida ilustre-ria, batez ere haurrak, eta giro ederrean ospatu zituzten golak. L. GARCIA, IBAZ

Amezketako



MONDEJO TXAPELKETA MURUARENTZAT

Amezketako Aste Kulturala igandean amaitu zen, azokak bereziki bertan, herriko produktua eta eskulanak jarri zituzten ikusgai amezketarrek. Azokako postuekin batera, mondejo txapelketa jokatu zen. Bederatzi partaide agertu ziren lehian. L. GARCIA, IBAZ

ra, eta denetarik mondejorik onena Amezketako Mari Jose Muruak aurkitu zuen. Partaide guztiak herrikoak zirela ere alpatu behar da. Txapelketa honen esan zioten agur kultur ekitaldi osaturiko egitarauari amezketarrek. L. GARCIA, IBAZ

Tolosa



ALUR TXIKIN, IPUINAK

Urkitu Alur Txiki auzo elkartearen haurrek ipuin kontalariaz gozatzeko aukera eduki zuten larunbatean. Ipuinen munduaren sorresa eta antzeko kontuak entzuteko aukera izan zuten bertan. Hirago eta hembengo kondairak izenburupean. L. GARCIA, IBAZ

Promoio berria

Sustatzailea:
 Epelegain
 Eraikuntzak eta
 Promozioak, S.L.
 Eraikitzen du:
 Aburuza
 Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

Irudia ◊

AMASARRAK ETA ERREZILDARRAK NAGUSI HARRIAREKIN

Pasa den asteburuan bi giza proba jokatu dituzte eskualdeko hiru taldek. Batatetik Amasako jaien barruan jokatu zen larunbat eguerdian. Amasa eta Zizurkil aritu ziren nor baino nor lehian. Talde bakoitzak bederatzila-gunek osatzen zuten. 800 kiloko harria mugitu behar

zuten 20 minututan, zeinek plaza gehiago egin. 20 minutu amaitu ondoren, 46 plaza egitea lortu zuten zizurkildarrek. Amasarrak 49 plaza egin zituzten, lehia irabaziaz. Bestetik, berrobitarrek errezildarren aurkako desafiota izan zuten, Errezilgo plazan. 20 minutuan, 1100

kiloko harriarekin ahalik eta plaza gehien egitea zen helburua. Errezildarrak izan ziren proba egiten lehenak, eta 38 plaza egin zituzten. Berrobiko taldeak, berriz, 34 plaza egin zituen. Berrobitar asko Errezilen izan ziren herri-tarrei babesa emateko. A. IMAZ/HITZA

→ Laburrak

Abel Barriola Lau t'erdiko finaletik kanpo gelditu da

LEITZA ▶ Partida on bat egin zuen arren, Barriolak ezin izan zuen finalerako txartela eskuratu igandean, Olaizola II.aren aurka jokatuako partidaren. Barriola aurretik joan zen seigarren tantora arte, baina, hortik aurrera Olaizola izan zen nagusi. Amaieran Barriolak egindako akatsen ondorioz, Olaizola izan zen garaile.

Ibarra Euskal Herriko Lauko Txapelketatik at

IBARRA ▶ Asteburuan, Ibarako sokatirako A eta B taldeak Euskal Herriko Lauko Txapelketatik kanpo geratu ziren. A taldea indartu zuten, B taldea ahulduz. Jokaldia gaizki ateratu zitzaizen eta azkenik bi taldeak kanpoan gelditu ziren.

Laskorainek 0-3 galdu zuen Zierbenaren aurka

Laskorainek partida bikaina egin zuen arren, ezin izan zieten 2A mailako azken bi urteetako txapeldunari

Iñaki Egizabal Tolosa

Pasa den larunbatean Laskorainek Zierbenaren aurka jokatu zuten, eta 0-3 galdu zuen.

Azken bi urteetan txapelduna izan da Zierbena, eta 2A mailako Espainiako kopako hamaiseirenetara ere sailkatu berri da. Aurkari gogorra zen, beraz.

Laskoraingoek gogor borrokatu zuten. 2. minutuan bisitariak aurreratu ostean markagailua malda gora izan zuten arren ikastolakoak ez ziren inongo unetan behera etorri.

Penalti eztabaidatu bat tarteko neurketa 0-2 iritsi zen atsedendira. Atsedendia ondoren jokatu zuten hobeen Laskoraingoek. Defentsa zertxobait aurreratu eta minutu luzez parez pare izan ziren bi taldeak, baina gol aukerak sortuagatik ez zuten golik sartu.

0-3 ikusgarriak itxi zuen partida etxekoen ezintasuna areagotuz, baina, Javi eta Aitorren mutilak harro egon behar dute buruturiko lanak zertxobait gehiago merezi izan baitzuten, aukeraren bat emango zien gol bat bai gutxienez. Edozein kasutan Zierbenaren aurkako porrota ez da inolako hondamendia.

Gozatzeko denboraldia dute laskoraindar guztiak, bai jokalariek eta baita zaletuek ere, eta orain artean honelaxe egin dute sei jardunalditan.

Zeberio II.a, hirugarren partidaren zain

Ezkurra-Aizpurua II.ak 40-37 irabazi dute Zeberio II.aren eta Ionon aurka; Aizpurua tolosarra, finalerdietara

Erredakzioa

Binakako Erremonte Txapelketan aurrera egiten duen jakiteko, itxaron egin beharko du Zeberio II.a elduaindarrak. Ezkurra-Aizpurua II.aren aurka 40-37 galdu zuen Zeberio, Ion bikotearekin. Honebestez, Aizpurua II.a tolosarra finalerdietarako sailkatu da, bere lehen parte hartzean. Hurrengo partida irabazten badu, txapelketan aurrera jarraituko du Zeberio. Lehia erabakigarri horretan Urtasu-Etxeberria III.a bikotea izango dute aurkari.

Larunbateko partidaren finalerdietarako txartela zegoen jokoan, eta Ezkurra-Aizpurua II.a indartsu ateratu ziren. Hasieratik markagailuan euren aldeko tarte handia zabaldu zuten. Patxi Zeberio eta Ion hotz antzean irten ziren kantxara, eta atzetik ibili ziren: 5-1; 14-4; 20-12 eta baita 36-20.

Gorriek aurrera egiteko 31 tanto nahikoak zituztenez, agian lasai hartu zuten partidaren amaiera. Urdinak, Ion handi batekin, markagailua iraultzen hasi ziren. Zeberio II.aren atzelariak, bost tanto lortu zituen jarraian sakez. Ezkurak maila jaitxi egin zuen eta markagailura parekotasuna iritsi zuen partidaren lehen aldiz: 36-33. Urdinen erreakzioa, ordea, hortxe amaitu zen; Ezkurra esnatu egin zen, eta maisuetan maisuenak partida 40ra eramatea lortu zuen.

◊ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



-ESKER ONAK-

BENITA ALUSTIZA MENDIGUREN

(Juan Mari Aristimuñoren alarguna)

Orain egun gutxi Seguran hil zen 88 urte zituela

FAMILIAK

Eskerrak eman nahi dizkizuegu horrenbeste eratan maitasuna eta elkartzasuna adierazi diguzuen guztioi.



≈ 20°
≈ 11°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	18°
HOTZENA	13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Alegia.** Udazkeneko kultur egitarauaren barruan gaur, euskal jantziei buruzko hitzaldia eta tailerra 18:30ean, Lurdes Esnaolaren eskutik.
- **Anoeta.** Kultur eta kirol astearen barruan gaur, 19:00etan, Mikelasagasti auditorioan, Loatzo Musika Eskolako emanaldia. Era berean, hilaren 19a bitarte kiroldegiko sarreran, immigrazioari buruzko erakusketa ikusi daiteke. *Ni ere pertsona* 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era bisitatu daiteke.
- **Aduna.** Kultur astearen barruan gaur, 20:00etan, Patxi Abasolok *Konkista 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroi-mena* izeneko hitzaldia emango du. Kultur aretoan izango da saioa.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan Cannes herriko Arketal talde-tailerrari eskainitako erakusketa ikusi daiteke otsailaren 12a arte. Bertan talde frantsesaren 150 bat pieza ikusi daitezke.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Unax eta Aiora Alberdi Iztueta (Anoeta). Zorionak Unax osteguneko partez, dagoeneko 5 urte, txapeldun!!! Eta zorionak Aiora, atzo 3 urte bete zenituen, tximeleta!!! Muxu potoloak biontzat Arhaneren partetik!!!

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurrak

Ehunka lagun bildu dira Tolosan, osasun publikoa aldarrikatzeko

Larunbateko TOPAren manifestazioan Asuncion Klinika «publiko bihurtzea» eskatu zuten

Asier Imaz Tolosa

Larunbat eguerdian ehunka pertsona bildu ziren Tolosako Trianguloa plazan, *Tolosaldea osasun publikoaren alde* lelopean manifestazioa egiteko.

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformak egin zuen mobilizazio deia, eta ehunka lagunek kalera irtenaz erantzun zuten; manifestazioaren burua San Frantzisko kale amaieran zihola, mobilizazioan parte hartzen ari ziren guztiak oraindik Trianguloatik atera gabe zeuden.

TOPA osatzen duten eragileek, eskualdeko udal guztietako ordezkariak eta herritarrek osatu zuten manifestazioa.

Babes ugari

Manifestazioaren amaieran, plataformako kideek eskualde honetako bizi duen «diskriminazio» egoera salatu nahi izan zuten: «Euskal Herriko eskualde bakarra gara kudeaketa publikoko eskualde ospitale publiko ez duena, beste lekuetan bezalaxe ordaindu arren».

Eusko Jaurlaritzaren eta Asuncion Klinika pribatua aurrera eramaten ari diren berrantolaketaren hitzarmen berria ere, gogor salatu zuten: «Aldaketarekin galtzen aterako gara, anbulatoriora eta erresidentziara joateko aukerak galduko baititugu».

Arduradunak zeintzuk diren argi dute TOPA osatzen duten eragileek: «Pribatizazio prozesu hau EAJren gobernuaren eskuetik hasi zen, eta PSE-EEko gobernu honekin jarraitzen du aurrera». Horren aurrean, eskualdean nahiz diputazioan jasotako babesa azpimarratu zuten TOPAkoek: «Orain egun gutxi Tolosaldeko 28

herrietako eta Legorretako zein Andoingo alkateen babesa jaso dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte ongizateko diputatuaren babesa bezala; eskualdean, berriz, 16.000 sinadura bildu ditugu».

Aurkako eta aldeko iritzia ospitale publiko baten inguruan mugitzen dira. Kudeaketa publiko ospitale pribaturik ez dute nahi TOPAkoek, alderantziz, «Asuncion Klinika publiko bihurtzea» eskatzen dute. Bide horretan herritarren babesa dutela azaldu zuten, eta horregatik, «Tolosaldeko herritarren eskaera garbi honen kontra, gobernuak entzregor eginaz, hitzarmena sinatzen badu, politikoa hauek ez gaituztela ordezkatzeko deritzogu, eta herritarrenak ez diren interesak defendatzen dituztela».

Larunbateko mobilizazioari amaiera emateko, herritarrek mobilizatzen jarraitu behar dutela aldarrikatu zuten osasun publikoaren aldeko plataformatik.



Ehunka lagun elkartu ziren manifestazioan larunbatean, Tolosako kaleetan. A. IMAZ



**Egin HITZAren
harpidedun**

abenduaren 31 baino lehen,
eta jaso

MAHALA ekoizlearen

produktu sorta hau

OPARI

**Bertako informazioari,
bertako produktuak**



hitza info

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info